

# “Pixka bat es mucho”



**EUSKO JAURLARITZA**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

## SARRERA

*Urriaren 30ean abiaraziko da euskararen **erabilera** bultzatzeko “Pixka bat es mucho” izeneko kanpaina.*

*Izan ere, 2006. urtean eta Ukan birusa oinarritzat hartuta egin zen kanpainaren jarraipena dugu hau.*



*Zer da UKAN?*

*Birus osasuntsua, ona eta dinamikoa da, eta bere helburua euskararen erabilera kutsatzea da.*

*Ukan hizkuntza-bizikidetzaren eta benetako elebitasun eraginkorraren ikurra da, baita norgehiagoka ezaren eta bazterketa ezaren ikurra ere.*

*Datozen hilabeteetan Ukan birusak Euskal Herriko kultur eta kirol agendako ekintza garrantzitsuenetan parte hartuko du.*



## HELBURUAK

- *Euskara jakin arren erabiltzen “ausartzen” ez diren pertsonak euskaraz ere hitz egitera bultzatuko dira – eta ahalegin hori aitortuko zaie-. Ezer ezarri gabe eta estutu gabe hitz egin behar dute, modu naturalean, horrela denok irabazten dugulako eta, azken finean, kanpainaren leloak honakoa diolako: “Pixka bat es mucho”.*
- *Euskaldunei jakinaraziko zaie zaila dela eta ahalegin handia egin behar dela, beldurrak alde batera utzita, euskaraz hitz egiteko. Euskaldunak horren gainean kontzientziatuko dira eta prozesu horretan lagun dezaten eskatuko zaie.*





EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

- *Aurrerapauso irmoa eman behar da ikasitakoa aplikatzeko eta erabili ahal izateko erronkan.*
- *Euskararen erabilera bultzatuko da, euskara normalizatzeko bide nagusia eguneroko arlo guztietan erabiltzea baita.*



*CLAIM: “Pixka bat es mucho”*

*Batetik, larritasuna kendu nahi diogu kontu honi eta jendeak beldurrari aurre egiteko ahaleginetan gabilta, ez izan erratzeko beldurrik, ez lotsatu, hitz egin lasai....*


*Bestetik, jendeak dakien euskara hitz egin dezan lortu behar dugu, denok dakigulako uste baino euskara gehiago.....*

*..... eta “Pixka bat es mucho”.*



## KOMUNIKAZIORAKO ESTRATEGIA

*Hainbat ekintza bideratuko ditugu: publizitateari lotutako ekintzak eta hartzaile bereziei zuzendutako partaidetzarako eta garapenerako ekintzak.*



## *EKINTZA BEREZIAK*

*Urriaren 30ean: KANPAINA ABIARAZTEKO  
EKITALDIA Donostiako Tabacaleran*

*Kanpaina aurkeztuko da eta bertan izango dira,  
besteak beste, administrazioaren ordezkariak,  
Gipuzkoako gizartearen ordezkariak eta euskara  
normalizatzearen alde lan egiten duten eragileak.*

*Ekitaldian honakoak izango dira:*

- Iragarkiak eta irratiko mezu laburrak aurkeztuko dira*



- *Miren Azkaratek –Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak- eta Patxi Baztarrikak –Hizkuntza Politikako sailburuordeak- hitz egingo dute.*
- *“Enpresaren soinu dantzak” performancea entzungo da Orexa Tx taldearen txalapartarekin.*
- *José María Moraza artista donostiarraren “errespetua” eta hizkuntza-bizikidetzari buruzko lana erakutsiko da; lan hori artearen kontzeptu etiko-estetikoa azpimarratzen duen instalazio soil eta modernoa da.*
- *“Pixka bat es mucho” kanpainara atxikitzeko lekukoak azalduko dira: enpresaren munduko, kulturaren arloko, komunikazioko... pertsona ospetsuen eskutik.*



## *Azaroaren 13an: UKAN PINTXOA – Euskalduna Jauregiko Etxanobe jatetxean*

- Euskalduna Jauregiko Etxanobe jatetxean pintxo berezi bat egingo da, Euskal Herriko II. Pintxo Lehiaketako irabazleek beren-beregi sortuko baitute pintxo bat kanpaina honetarako.*

*Pintxoari “Ukan pintxo” izena emango zaio eta laster dastatu ahal izango dugu euskararen erabileraren eta sustapenaren alde agertzen diren taberna eta jatetxe guztietan.*



- *Edorta Lomo eta Iñigo Cojo, “A fuego negro” saioko sukaldariek, zuzenean egingo dute pintxoa.*
- *Deialdi gastronomikoa, aldi berean, benetako jaialdi bihurtuko da ikuskizunekin eta dj batzuen musikarekin.*

*Abenduaren 3an: KANPAINAREN AMAIERA  
Gasteizen, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko.*



## *EKINTZA PUBLIZITARIOAK KOMUNIKABIDEETAN*

*Kanpainako mezuei garrantzia eta zabalkuntza emateko 4 asteko kanpaina egingo da komunikabideetan:*

- Telebista (3 spot, 2 gaztelaniaz eta 1 euskaraz)*
- Irratia (3 mezu labur, 2 gaztelaniaz eta 1 euskaraz)*
- Prentsa*
- Markesinak*
- Internet*

*Kanpainaren ebaluazioaren arabera estaldura %69,8koa da, eta 970,5 grp. eta 13,9 O.T.S. lortzen ditu.*



## *UKAN BIRUSAREN PRESENTZIA BESTE EKITALDI BATZUETAN*

*Ukan gure artean egongo da datozen hilabete hauetan gure geografiako ekitaldirik adierazgarri eta jendetsuenetan.*

*Kirola, kultura, ekonomiaren mundua, unibertsitatea... izango dira gure pertsonaia atseginarean destinoak, ahaztu gabe Kilometroak 2007an, San Mamesen, Buesa Arenan, Illumben, Leioako Campusean... egon dela.*



## HIZKUNTZ POLITIKAKO KANPAINAREN OINARRI NAGUSIAK

***25 urte: balantze oso positiboa... baina artean bide luzea geratzen zaigu.***

*Euskararen normalizazioa, elebitasun ofizialetik elebitasun erreal eta berezkora arteko jauzia prozesu historikoa da, azken 25 urteetan benetan aurrerakuntza nabarmenak izan dituena. Baina oraindik jorratu beharreko bidea luzea da. Euskal herritarrak eurak izango dira -bide horretako protagonistak- aukerak eta erritmoak zehaztuko dituztenak.*



## ***Hizkuntza-bizikidetza eta euskararen aldeko ekintza positiboa***

*Hizkuntza-bizikidetza balorea eta aktiboa da gizarte kohesioa lortzeko. Kontua ez da hizkuntza bat aukeratzea eta bestea baztertzea, kontua bien aldeko apustuari ekitea da –askatasun indibiduala begirunez zainduta eta guztion hizkuntza-eskubideak bermatuta- eta, egun dagoen orekarik gabeko egoera aintzat hartuta, eremu urriko hizkuntza eta hizkuntza gutxituaren aldeko ekintza positiboa garatzea elebitasuna erreal eta eragingarria izan dadin.*



## **Ezagutzatik erabilerara**

*Euskararen normalizazioaren erronka eta gakorik behinena erabilera da. Ezagutzaren ikasgaia aurreratuta dago eta orain erabileraren erronkari ekin behar diogu, eguneroko bizitzako esparru guztietara zabaltzeari, alegia. Metatu dugun ezagutza hori eguneroko erabilera bihurtzea, “jakin” eta “ezagutu” etapatik “erabili”-ra igarotzea, inolako dudarik gabe, atzera egin ezineko benetako gunea da euskararen normalizazioaren prozesuan. Eta erronka hori gainditzeko “Pixka bat es mucho” eta erabakiorra da, benetan, jakin arren oraindik ere hitz egiten ausartzen ez direnen taldearen ekarpena.*



## ***Erakundeen aitzindaritza, gizarte ekintza eta konpromiso pertsonala***

*Euskararen normalizazioa eta elebitasun erreala eta eragingarria, erakunde eta gizarte mailako atazak ez ezik, batez ere dimentsio pertsonaleko jarduketak dira. Gakoa norberaren konpromisoa da, ez bakarrik bihotzetik abiatuta, beharrezkoa delako zentzua ere, pertsonari berari batzen zaion balio erantsi eta gizarte kohesiorako aktiboa. “Pixka bat es mucho”.*





## Eskerrik asko

**EUSKO JAURLARITZA**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística